



ELGOIBARKO TOPONIMIA

Leku izenak eta toponimoen
idatzizko erabilera arautua



MORKAIKY
KALEA

LEKVEDER
PARKA

ZIZILION
KALEA

Zer da toponimia?

Toponimoak leku-izenak dira: mendiak, errekak, soroak, baserriak, iturriak, auzoak, herriak... identifikatzeko erabiltzen ditugun izen bereziak. Labur esanda, beraz, leku izen bakoitzari toponimo deitzen zaio, eta leku izenen jatorria aztertzen edo ikertzen duen gaiari, aldiz, toponimia.

Zergatik eta zertarako jaso leku-izenak?

Bi dira toponimiaren balio nagusiak. Alde batetik, toponimiak balio linguistiko paregabea du, hizkuntzaren eta ingurunearen bilakaeraren berri ematen baitigu. Pertsona buri buruz hitz egiten digu, baita antzinako eta gaur egungo paisaiari buruz ere. Bestetik, toponimiak balio historiko ukaezina du.

Balio horiek ondare neurrigabea bihurtzen dute toponimia, zaindu eta gorde beharrekoa. Nazio Batuek ere, 2007an, "gizaki guztion kultur ondare material gabea" izendatu zuten toponimia. Horrela bada, administrazioaren betebeharra da ondare hori zaindu eta gordetzeko baliabideak jartzea. Hala ere, erantzukizun handiena herritarrona da; toponimia belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititu baita. Gainera, horixe da toponimia gordetzeko biderik naturalena.



www.elgoibar.org

Hortaz, Toponimiako ikerketen helburu nagusia lekuen izenak bizirik irautea edota jasotzea da, noizbait galduko badira, edo jada, galdu badira, euren lekukotasuna izateko.

Baina, toponimoak ez dira betirako, erabiltzen ez den toponimoa desagertu egiten baita; eta ez toponimoa bakarrik, baita berak dakarren informazioa ere. Adibidez, egungo gizarteak inguru fisikoa aldatu duelako, baserriren bat desagertzen baldin bada, gure historiaren eta kulturaren zatitxo bat ere galdu egingo da; baina toponimoa bizirik mantenduz gero, edota berau jasota baldin badago, gure sustraian berri emango digu. Hortik dator leku izenak biltzearen garrantzia.

Hori dela-eta, Elgoibarko Udalak ahalegin berezia egin du ondare hori ez galtzeko, alde batetik toki izenen bilketa eginez, eta bestalde, toponimo horien idatzizko erabilera arautuz.

Izenak araututa egotea oso garrantzitsua da, ez bakarrik ondare kulturala babesteko; eguneroko zereginetarako ere ezinbestekoa da. Udalak, Postetxeak, eskolek, eta abarrek eguneroko funtzionamenduan leku izenak darabiltzate. Horregatik, Nazio Batuek toponimoak arautzeko gomendioa egiten dute, besterik ez bada, larrialdietako zerbitzuetarako edo GPSetan zer idatzi behar dugun jakin ahal izateko.



¿Qué es la toponimia?

Los topónimos son los nombres propios utilizados para identificar a los diferentes lugares: montes, ríos, campos, fuentes, barrios, localidades... Por otro lado, la ciencia que estudia el origen de los topónimos se denomina toponimia.

¿Por qué se debe investigar la toponimia?

La toponimia posee dos valores fundamentales. Por un lado, la toponimia tiene un valor lingüístico innegable, al informarnos de la evolución de la lengua y el entorno. Por otro lado, tiene un valor histórico evidente. Por ello, el año 2007, las Naciones Unidas proclamaron la toponimia "patrimonio cultural intangible de la humanidad".

Por tanto, corresponde a la administración poner los medios para su conservación. No obstante, la mayor responsabilidad es de la ciudadanía, puesto que la transmisión oral es la forma más natural para la pervivencia de la toponimia.

El objetivo primordial de los estudios toponímicos es el mantenimiento y conservación de los topónimos; puesto que la desaparición de un topónimo supone la pérdida de la información histórica y cultural que aporta.

Así pues, el Ayuntamiento de Elgoibar ha realizado un esfuerzo especial para evitar la pérdida de ese patrimonio, recopilando los topónimos, y al mismo tiempo, normativizando el uso escrito de los mismos.



BARREN

ELGOIBARKO TOPONIMIA LANAREN AURKEZPENA 2011.
PRESENTACIÓN DEL ESTUDIO TOPONÍMICO DE ELGOIBAR.



Lana nola egin da?

Lana Udalak emandako Gotzon Garate bekaren bidez egin da. Horretarako, 2009an Udalak Elgoibarko toponimia bildu, sailkatu, aztertu eta finkatzeko proposamena egiteko beka kaleratu zuen, eta hitzarmena sinatu zuen Euskaltzaindiarekin toponimia lanaren jarraipena egin ahal izateko.

Beka, bestalde, Nerea Alabari eta Amaia Pinachori esleitu zitzaion, eta horiexek izan dira Elgoibarko toponimia aztertu dutenak. Bekadunek uneoro izan dute Euskaltzaindiaren laguntza, hain zuzen ere, Mikel Gorrotxategi izan baita euren tutore.

Hasiera batean, bekadunek idatzizko iturriak aztertu zituzten eta artxibo lanari ekin zioten. Horretarako, udal artxiboa ez ezik, ingurukoak (Eibar, Soralue, Oñati...) eta Eusko Jaurlaritzak emandakoak ere aztertu zituzten. Toki izen bakoitzaren idazkerak eta iturria jaso zituzten Euskaltzaindiak horretarako prestatutako datu basean.

Idatzizko informazioa txukundu ondoren, ahozko informazioa biltzeari ekin zioten, hala, idatziz jasotako leku izenak bizirik zeuden ala ez jakiteko eta non zeuden jakiteko. Ahozko informazioa biltzeko, kaleko eta baserri auzoetako herritarrekin elkarrizketak egin zituzten. Ahozko informazio hau ere datu basean sartu zuten.

Ondoren, datu basean zeuden era idatziak eta ahozkoak kontrastatu zituzten eta mapetan kokatu.

Ordura arte bildutako toponimoen berri emateko, Udalak erakusketa bat antolatu zuen eta herritarrek, toponimoei buruzko informazioa jasotzeaz gain, ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

Hori egin ostean, lan guztiaren koordinazioaz eta gidaritzaz arduratu den Euskaltzaindiko tutorea izan zen jasotako toponimoak euskaraz zuzen idazteko behin-behineko proposamena egin zuena, eta proposamena Udalbatzarraren Osoko Bilkurari bidali ziona, behin-behingoan onar zezan.

Elgoibarko toponimia behin-behingoan onartutakoan, alegazioak eta iradokizunak egiteko epea ireki zen, herritarrek ikerketan bildutako toponimoei egoki irizitako ekarpenak egin ziezazkieten. Alegazio-epearen ondoren, Euskaltzaindiak herritarrek egindako ekarpenen gaineko ebazpena eman zuen. Eta azkenik, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak behin betiko onartu zituen Elgoibarko toki izenak, 2011ko abenduaren 15ean egin zuen batzarrean.



¿Cómo se ha llevado a cabo el estudio toponímico?

El estudio se ha realizado a través de la beca Gotzon Garate. En ese sentido el Ayuntamiento publicó una beca con el objetivo de recopilar, clasificar, estudiar y fijar la toponimia local, asimismo, firmó un convenio con Euskaltzaindia para que realizase el seguimiento de dicho estudio.


Tras realizar el estudio de la documentación escrita, se estudió la información oral de la toponimia local. Ambas fueron recogidas en la base de datos elaborada a tal efecto por Euskaltzaindia. Después de contrastar la información escrita y oral, se procedió a situar en mapas la información obtenida.

Con motivo de informar a la ciudadanía de los topónimos recopilados, el Ayuntamiento organizó una exposición, donde la ciudadanía, además, tuvo la oportunidad de realizar aportaciones al estudio toponímico.

A continuación Euskaltzaindia realizó la propuesta provisional para escribir correctamente los topónimos locales, propuesta que también fue aprobada provisionalmente por el Pleno de la Corporación Municipal. Tras lo cual, se abrió un plazo para la presentación de alegaciones.

Después de que finalizase dicho plazo, Euskaltzaindia dictó resolución sobre las alegaciones recibidas. Finalmente, el Pleno de la Corporación Municipal aprobó definitivamente la toponimia local el día 15 de diciembre de 2011.

TOPONIMIA BEKAREN
DIPTIKOAREN AURREALDEA.
DÍPTICO CORRESPONDIENTE
A LA BECA GOTZON GARATE.



MORKAIV
KALEA

LEKVEDER
PARKA

ZIZILION
KALEA

Noren ardura da euskarazko toponimoen idazkera arautzea?

Euskaltzaindiaren egitekoa da izenak arautzea, hau da, euskaraz zuzen nola idatzi behar diren esatea. Helburua bakarra da: euskal leku izena euskal grafiaz modu egoki eta zuzenean idaztea.

Ahozko erabilerari buruz, berriz, Euskaltzaindiak ez dio ezer, bere egitekoa ez delako. Horregatik, ez da *Arreitture* edo *Aozar* idatzi behar, euskara batuan *leio* edo *aundi* idazten ez den arrazoi beragatik. Horren ordez, idatziz **Arregitorre** edo **Adozar** hobetsi eta proposatu dira; baina norberak orain arte etxean, auzoan, lagunartean egin den bezala ahoskatzen jarrai dezake.

¿A quién compete la normativización de los topónimos en euskera?

Es competencia de Euskaltzaindia la normativización y fijación de los topónimos vascos. En cuanto al uso oral de los topónimos Euskaltzaindia no tiene competencia para establecer ningún tipo de norma.

Por ello, no es correcto escribir *Arreitture* o *Aozar*, del mismo modo que no se debe escribir *leio* o *aundi*. Para la lengua escrita se han aprobado formas como **Arregitorre** o **Adozar**.





Toponimia: Lan etengabea eta amaiezina

Aipatu nahi dugu toponimia lana ez dela sekula bukatzen. Horrelako edozein lanetan bezala, beti agertuko da toponimo berriren bat (idatzizko iturriren bat edo ahozkoa dena), arautzean zalantzaren bat, erabakiren bat... Horregatik, bilketa eta arautze lanei bukaera eman diegun arren, egon daitezke toponimoak biltzearekin nahiz arautzearekin zerikusia duten aldaketak; eta aldi berean, bukatu berri dugun lan honek izan dezake segidarik etorkizunean.

La toponimia: un trabajo que no cesa

Los estudios toponímicos son trabajos que no tienen fin. Siempre existe la posibilidad de realizar alguna aportación nueva a este estudio, a pesar de que se haya dado por terminada la labor de normativización de los topónimos recopilados. Además, este trabajo puede tener continuidad en el futuro.



HERRITARREN EKARPENAK JASOTZEKO UDALAK ANTOLATURIKO ERAKUSKETA.
EXPOSICIÓN ORGANIZADA POR EL AYUNTAMIENTO PARA RECOPILAR INFORMACIÓN.




Zein toki izen agertzen dira liburuxka honetan?

Aldatutako izenak kolore desberdinez idatzita daude, eta aldatutako forma, forma zuzenaren ondoan idatzi da, herritarrek forma berri horretara ohitzeko aukera izan dezaten.

¿Qué topónimos figuran en esta publicación?

Las formas que han variado se han escrito con diferente color, y la forma más habitual entre la población aparece entre paréntesis.





Zer izan dugu kontuan toki izenak nola idatzi behar diren erabakitzeke?

Ondorengo lerroetan Elgoibarko toponimoen **idazkera** zuzena hobeto ulertzeko zenbait ohar egingo ditugu. Hala ere, gogorarazi eta azpimarratu behar dugu idazkeraz ari garela, ez ahoskeraz. Izenak, ahoz, era askotan erabiltzen ditugu, eta hemen hitz horiek nola idatzi behar diren aditzera eman nahi izan dugu. Honek ez du esan nahi, berba egiterakoan *Uarrua* eta *Eguen* erabiltzea gaizki dagoenik, *Ugarroa* eta *Egiguren* idatzi behar dugula baizik.

Criteria adoptados para la fijación de la escritura de los topónimos

Se han adoptado una serie de criterios para establecer la escritura de los topónimos. Estos criterios sólo afectan a la lengua escrita. Por ello, a pesar de que se debe escribir *Ugarroa* o *Egiguren*, podremos seguir utilizando *Uarrua* y *Eguen* en la lengua hablada

❖ **Kontsonante galerak eta kontsonante txandaketak**

Ahoz ohikoa da bokal arteko zenbait kontsonante, eta bereziki, -g- kontsonantea ez ahoskatzea. Horixe da, hain zuzen, ere hainbat toponimoren amaierako **-aga**, **-tegi** eta beste hainbat atzizkirekin gertatzen dena. Izan ere, bokal arteko <g> desagertu eta -a ahoskatzen da ia sistematikoki: **Urteaga** (*Urtia*), **Arraitzaga** (*Arraitza*), edo **Amuskategi** (*Amuskatei*).

Gauza bera gertatzen da bokal arteko <r> kontsonantearekin. **Soroarte** toponimoa horren adibide garbia dugu; bokal arteko <r> kontsonantea galdu izanaren ondorioz, leku horri, ahoz, *Soarte* esaten zaio-eta.

Beste horrenbeste pasatzen zaio, sarritan, bokal arteko <d> kontsonanteari. Adibidez, idatziz **Adozar** dena, askotan, *Aosar* esaten da, eta **Urkidi** dena *Urki*.

Batzuetan gertaerak pilatu egiten dira eta izena nabarmen aldatzen da. Esaterako, **Uparitzaga** izanaren kasuan <r> eta <g> kontsonanteak desagertu eta *Upaitza* esaten dugu.

Gertaera hauek berriak direnez, idatziz forma osoak arautu behar dira.

❖ **Pérdidas y alternancias consonánticas**

Frecuentemente en la expresión oral del euskera desaparecen algunas consonantes en posición intervocálica. En el caso de los sufijos **-aga** y **-egi**, es muy normal que se pierda la consonante <g>, como se ve en los siguientes casos: **Urteaga** (*Urtia*), **Arraitzaga** (*Arraitza*) o **Amuskategi** (*Amuskatei*). Asimismo, es muy frecuente la pérdida de la <r> y <d> intervocálicas tal y como sucede en los topónimos **Soroarte** (*Soarte*) y **Adozar** (*Aosar*) o **Urkidi** (*Urki*). En otros casos, concurren más de un fenómeno, como es el caso de **Uparitzaga** (*Upaitza*), donde han desaparecido las consonantes intervocálicas <r> y <g>.

Esos fenómenos son nuevos por lo que se deben normativizar las formas completas.

MORKAIKY
KALEA

LEKVEDER
PARKA

ZIZILION
KALEA

❖ **Bokalismoak eta yod epentetikoa**

Elgoibarko eta inguruko euskararen oso arrunta da elkarren ondoan doazen bi bokalen artean (hiatoa) kontsonante bat (kontsonante epentetikoa) sartzea, bereziki, izen amaierako bi bokalen artean: esate baterako, *Aubixa* eta *Etxaspixa* ahoskatzen dira, baina **Aubia** eta **Etxazpia** idatzi behar dira.


Berba amaieran, gainera, bokal aldaketak (bokalismoak) ere aurkitzen ditugu, bokal itxierak batez ere: *Aosarraldia* (**Adozarralde**), *Etxaurria* (**Etxaurrea**).

Bokalismo hauek guztiak bertako ahozko euskalkiaren erakusgarri dira, baina ezin dira arautu.

❖ **Vocalismos y yod epentética**

En el euskera de Elgoibar y su entorno es frecuente la introducción de una consonante epentética entre vocales que forman hiato. Por ejemplo, se pronuncia *Aubixa* y *Etxaspixa*, pero se debe escribir **Aubia** y **Etxazpia**.

Asimismo, en posición final de palabra es normal que sucedan una serie de vocalismos (cierres vocálicos) que no deben recogerse en la lengua escrita, por tratarse de una característica del euskera local: *Aosarraldia* (**Adozarralde**), *Etxaurria* (**Etxaurrea**).





❖ **Amaierako -e paragogikoa**

Mendebaldeko toponimian, kontsonantez eta kontsonante gehi artikuluz amaitzen diren leku-izenetan, oso ohikoa da amaierako -a bokala, (artikulua) -e bihurtzea (bokal paragogikoa). Gertaera hau gero eta arruntagoa da gure inguruan. Adibidez, **Arana** toponimoa ahoz *Arane* bihurtu da; eta **Zabala**, berriz, *Zabale*. Kasu honetan **-a** dun formak arautu behar dira.

❖ **-e final paragógica**

En la toponimia occidental, es muy frecuente que la -a final (artículo) de algunas formas se convierta en -e, como sucede en el caso de **Arana** (*Arane*) y **Zabala** (*Zabale*). En ese caso, se deben normativizar las formas con **-a**.





❖ **Zenbait hizkien erabileraz: ñ, ll, s/z, h, tx**

Sarritan, euskara batuan eta toponimian alfabetoko hizkiak ez datoz bat. Esate baterako <ñ> eta <ll> grafiak, batuan ez, baina toponimian erabili egin behar dira, hala ahoskatzen eta dokumentatzen badira: **Kamiñerokoa** (ez Kaminerokoa), **Apatrizgañeko aldea** (ez Apatrizgaineko aldea), **Akillar** (ez Akilar).

<H> kontsonantea ahoskatzen ez bada, toponimoetan ez dira <h>dun formak arautu behar. Hala, **Arana** edo **Iruiturri** idatzi behar dugu, nahiz eta jatorrian "haran" eta "hiru" hitzak ditugun. Hala ere, toponimoak berriki sortuak badira, <h> arautu egin behar da: adibidez, **Haizetxe**, **Zuhaitzaetxea**, **Zuhazti** edo **Herrigain**.

Era berean, hainbat toponimoren idazkera ez dator bat euskara batuarekin. Batetik, euskalkiko hiztegia erabiltzen delako (*barri* eta *solo*, esate baterako), eta bestetik, sarritan toponimoak konposatuak eta eratorriak direnez, zenbait soinu aldatu egin direlako. Hori da **Agiñagatx** toponimoan gertatzen dena. Bigarren osagaia *haitz* bada ere, <tx> grafiaz idazten da, mendebaldean *atx* erabiltzen delako.

❖ **Uso de las consonantes ñ, ll, s/z, h, t x**

Muy frecuentemente no coincide el uso del alfabeto en el euskera batua con la toponimia. Al contrario que en euskera batua, en la toponimia se deben usar las consonantes <ñ> y <ll> en el caso de que la documentación confirme ese uso, por ejemplo, **Kamiñerokoa**, **Apatrizgañeko aldea** o **Akillar**.

En las zonas donde no se pronuncie la consonante <h>, ésta no se recogerá en la toponimia, como sucede en los casos **Iruiturri** o **Arana**. Aún así, en los topónimos de nueva creación se debe utilizar la <h>, por ejemplo: **Haizetxe**, **Zuhaitzaetxea**, **Zuhazti** o **Herrigain**.

Además, en algunos casos difieren la escritura de los topónimos y la del euskera batua. Por un lado, en la toponimia se observan formas dialectales (entre otros, *barri* y *solo*), y por otro, se dan una serie de cambios en los sonidos, al tratarse de topónimos compuestos o derivados. Se pueden mencionar el caso de **Agiñagatx**, que deriva de la forma occidental *atx*, y no de la forma estándar *haitz*.





❖ **Artikuluaren erabilera**

Toponimoak, jatorrian, leku bat zer zen adierazten zuten izen arruntak ziren, eta horietako askok artikulua (hitz bukaerako -a) eraman ohi zuten: **Goenagaetxebarria**, **Bekoetxea** eta abar. Hala ere, denborarekin, toponimo askok izen propioen itxura hartu eta artikulua galdu egin zuten: esaterako, **Aldaia** zena *Aldai* bihurtu zen.

Horrexegatik, hainbatetan, toponimo bat arautu behar denean, artikulua jarri ala ez erabaki behar izaten da. Horiek horrela, toponimo bat historian zehar, nagusiki, artikuluekin dokumentatu bada, eta artikulua XIX. mende amaieran edo XX. mendean galdu bada, berreskuratu egiten da, nahiz eta gaur egun ahoz erabili ez.

❖ **Uso del artículo**

A la hora de establecer la escritura correcta de un topónimo, hay que decidir si el topónimo se normativiza con artículo o no. Si, por término general, el topónimo se ha documentado con artículo (-a final), y se observa que la pérdida del mismo es reciente (fines del XIX o principios del XX) se debe recuperar el uso escrito de dicho artículo, por ejemplo, **Goenagaetxebarria** o **Bekoetxea**.

❖ **Toponimo konposatuak**

Leku-izen gehienak konposatuak edo eratorriak dira. Oro har, toponimo horiek hitz bakar batean esaten ditugu, batez ere, etxe izenak badira. Hala ere, toponimo konposatu eta eratorriak bereizita idatzi izan dira gehienetan, edo gidoiz lotuta: hala nola, *Benta Goiko*, *Errotatxo-bekua*, *Etxe Zuri* edo *Aizti Txiki*. Baina euskaldunon ohitura bestelakoa izan da, gure deitura konposatuetan ikus dezakegun bezala: *Gerrenabarrena* edo *Agirregomezkorta*. Horregatik, toponimo konposatu guztiak, etxe izenak batik bat, loturik idatzi behar dira. Hortaz, **Bentagoikoa**, **Errotatxobekoa**, **Etxezuri** eta **Aiastitxiki** dira idatzizko forma zuzenak.

❖ **Topónimos compuestos**

Existe la tendencia de escribir los topónimos compuestos y derivados de forma separada o unidos por un guión (*Benta Goiko*, *Errotatxo-bekua*, *Etxe Zuri* o *Aizti Txiki*). No obstante, siguiendo el patrón de la pronunciación los topónimos compuestos y derivados, deben escribirse unidos. Por tanto las formas correctas son **Bentagoikoa**, **Errotatxobekoa**, **Etxezuri** o **Aiastitxiki**.



MORKAIKY
KALEA

LEKVEDER
PARKET

ZIZILION
KALEA

❖ Euskalkiaren sena zaindu

Aurretik azaldu ditugun zenbait bokalismo onartzen ez badira ere, euskalkiaren berezko ezaugarri diren beste hainbat fonetika-fenomeno eta hitz gorde egiten dira toponimian. Horrela *-solo* edo *-barri* bezalako atzizkiak toponimian horrela arautu behar ditugu.

❖ Respeto al dialecto

En la toponimia se mantienen las características, los fenómenos fonéticos y el léxico propios del dialecto. Por ejemplo, se observa que los sufijos **-solo** y **-barri** aparecen con frecuencia en la toponimia local. Por ello, se han normativizado de ese modo.

❖ Ikerketaren ezusteko ondorioak

Horrelako ikerketa bat egitean ezustekoak ere izaten dira. Batzuetan, “betidanik” modu batean erabili izan den izen bat, aldaketa berri bat dela ikusten da. Beste hainbatetan, ikus daiteke jatorrian esanahi gardena zuten hitzak ez direla aspaldi aldatu, hiztunek, jadanik ulertzen ez dituztelako.

Adibide ederra dugu **Morkaiko** izenarekin. Ezaguna denez, Elgoibarren eta inguruan ohikoa da **-ko** amaiera duten izenak aldatzea eta **-ku** bihurtzea. Horiek horrela *goikoa*, *bekoa* edo *erdikoa* guztiak *goikua*, *bekua* eta *erdikua* bihurtu ziren XX. mendean.

Hori ikusita, mendi horren aldaera zaharra Morkaiko zela pentsatu zen, eta horrela arautu zen. Hala ere, ikerketak argi erakutsi du **Morkaiku** dela euskarazko izen zaharra, jadanik 1811n horrela ageri dena. Horrexegatik, Morkaiku arautu behar izan dugu.

Herri etimologiak eragiten dituen aldaketen erakuslea Akillar mendia da. Dokumentazioa argia da, **Akillar** da berezko izena, baina XX. mendean herri etimologiak Akellarre bihurtu zuen izen hau, eta horrela ezagutzen da mendizaleen artean. Hala ere, inguruko euskaldunek jatorrizko izenari eutsi diote.





❖ Conclusiones inesperadas en el estudio toponímico

En este tipo de estudios también hay sorpresas. A veces, a pesar de que pensamos que un nombre se usa de un modo concreto “desde siempre”, gracias al estudio se concluye que ha sufrido una transformación reciente. Además, hay nombres que no han cambiado durante mucho tiempo; porque a pesar de que su significado era claro al principio, habían perdido el sentido para los hablantes.

Un ejemplo de ello lo tenemos en el topónimo Morkaiko. En Elgoibar y su entorno es frecuente que la -ko final se transforme en -ku. Así las cosas, todos los *goikoa*, *bekoa* y *erdikoa* se convirtieron en *goikua*, *bekua* y *erdikua* en el siglo XX.

Por ello, se pensó que Morkaiko era la forma originaria de ese topónimo, y se normativizó de ese modo. No obstante, de acuerdo con la investigación efectuada, se ha concluido que la forma antigua es **Morkaiku**, documentada en 1811. Por ello es ésta la forma que se ha normalizado.

El nombre del monte Akillar es una muestra clara de la influencia de la etimología popular. La documentación es clara, el nombre originario es **Akillar**, pero en el siglo XX, a consecuencia de la etimología popular dicho nombre derivó en Akelarre, que es la forma más conocida entre las personas aficionadas a la montaña. Aún así, los euskaldunes de la zona han guardado la forma originaria.





ONARTUTAKO TOPONIMOEN FORMA ARAUTUA *ESCRITURA CORRECTA DE LOS TOPÓNIMOS* **APROBADOS**

Grafia aldatu den kasuetan, toponimoak beste kolore batean ageri dira, eta parentesi artean azaltzen da orain arte ohikoa izan den erabilera.

Los topónimos que han sufrido cambios en la grafía figuran en otro color, y la forma utilizada hasta ahora aparece entre paréntesis.

BASERRI AUZOAK / BARRIOS RURALES

Aiastia (San Migel)
Altzola
Arriaga
Azkue (San Roke)
Idotorbe (San Pedro)
Urruzuno
Sallobente-Ermuaran

KALEKO AUZOAK / BARRIOS URBANOS

Santa Klara
Sigma
Urazandi (Urasandi)

INDUSTRIALDEAK / ZONAS INDUSTRIALES

Aizkorri
Albitzuri
Arriaga
Ballibar
Ibaitarte
Lerun
Olaso
Olasope (lehen Sigma)
Oleta
Sallobente
Urazandi (Urasandi)



KALEAK ETA PLAZAK / CALLES Y PLAZAS

Aita Agirre plaza

Aizkorri kalea

Aizpizkar kalea (Aitzbizkar kalea)

Antonio Arrillaga kalea

Apatriz kalea (Apraiz kalea)

Arregitorre kalea

Arriaga kalea

Artekale kalea

Artetxe kalea

Autonomia kalea

Bainuetxeko zumardia

Ballibar kalea

Basarte kalea

Bernardo Ezenarro kalea

Bolatokiko parkea

Deba kalea

Donostia kalea

Ermuaranbide kalea (Ermuaran Bide kalea)

Erretsundi kalea (Erretxindi kalea)

Errotaberri plaza

Errosario kalea

Eulogio Estarta kalea

Ferrerias kalea

Gabriel Kurutzelaegi kalea (Gabriel Krutzelaegi kalea)

Giza Eskubideen parkea

Ibaitarte kalea (Ibai-tarte kalea)

Iñiguez Karkizao kalea (Iñiguez Karkizano kalea)

Jausoro plaza

Juan Mugurtza kalea (Juan Muguerra kalea)

Kalamua kalea

Kalebarren plaza (Nafarroa plaza)

Kalegoen plaza (Foruen plaza)

Karmen plaza

Kortazar kalea

Lekueder parkea (Leku Eder parkea)

Lerun kalea

Lorituaneke aldapa

Maalako parkea

Maalako plaza

Morkaiku kalea (Morkaiko kalea)

Olaso kalea

Olasope kalea

Pedro Migel Urruzuno kalea

Pedro Mugurutz eta etorbidea (Pedro Muguruza etorbidea)

San Antolin kalea

San Bartolome kalea

San Frantzisko kalea

San Ignazio kalea

San Joan plaza (San Juan plaza)

San Pedro kalea

San Roke kalea

Santa Ana kalea

Santa Klara kalea

Trenbide kalea

Ubitarte plaza

Uparitzaga kalea (Upaiz-zaharra kalea)

Urazandi kalea (Urasandi kalea)

Urazandi parkea (Urasandi parkea)

Usetxe kalea

Zizilion kalea (Xizilion kalea)

MORKAIKY
KALEA

LEKVEDER
PARKET

ZIZILION
KALEA

ZUBIAK / PUENTES

Altzolako zubia

Goikoerrotako zubia (Goiko Errotako zubia)

Maalako zubia

Melitoneko zubia (Melitongo zubia)

Pilarreko zubia

San Pedroko zubia

Sigmako zubia

Txankakoako zubia (Txankakuako zubia)

Urazandiko zubia (Urasandiko zubia)

LANDA INGURUKO BASERRIAK ETA ETXEA / CASERÍOS

AIASTIA (SAN MIGEL)

Aiastia (Aizti)

Aiastiberri (Aizti-Bekoa)

Aiastitxiki (Aizti-Txiki)

Aizpitarte

Aldazgain

Altzate

Altzatetxetxo (Altzate- Etxetxo)

Amaiur

Ariztizabal

Austakon

Ballegoitia (Ballegoiti)

Ballibarberria (Ballibar-Berri)

Ballibarzarra (Ballibar-Zaharra)

Belarreta

Belarretaberri (Belarreta-Berri)

Belartondo

Belaustegi

Bentaetxe (Benta)

Bentagoikoa (Benta-Goiko)

Beoain (Bioin)

Berazaluze (Berasaluze)

Berdezkunde (Berdeskunde)

Bertutesoro (Bertoso-Goikoa)

Bertutesorobekoaren txabola (Bertoso-Bekoaren txabola)

Bertutesoroberri (Bertoso-Berri eta Bertoso-Bekoa)

Borrajena (Borragein)

Erreizabal

Erreketa

Errezabal

Errezabal etxea-Benito baserria

Errotatxo (Errotatxo-Goikoa)

Errotatxobekoa (Errotatxo-Bekoa)

Garate

Gure Txokoa

Irunagasoro (Irunaso)

Izarpe

Izarpeko txabola

Izkuntza (Iskuntza)

Kaskantebekoa (Kaskante-Bekoa)

Kaskantezar (Kaskante)

Lerun

Leruntxiki (Lerun-Txiki)

Makibar



Mendibeltzu

Menditxo

Metalkoa (Metalkua)

Mugertza (Mugerza)

Oanagusi (Oa-Nagusi)

Oatxiki (Oa-Txiki)

Olazarraga (Olazarra)

Olazarragoikoa (Olazarra-Goikoa)

Orube

Orubeazpi (Orube-Azpi)

Orubegain (Orube-Gain)

Sagarraga

Sagasti

Soroarte (Soarte)

Talaia (Talaixa)

Urkaregi

Urkaregikurutzea (Urkaregi-Gurutze)

Urteaga (Urtia)

Urteagaberri (Urtia-Berri)

Zeleta

Zirarda (Ziarda)

Zirardaerdi (Ziarda-Erdi)

Zirardatxikibekoa (Ziarda Txiki Bekoa)

Zirardatxikigoikoa (Ziarda Txiki Goikoa)

Zumeta

ALTZOLA

Albizkoa (Albiskua)

Altzola

Altzolabea (Altzolabe)

Altzolaberazeta (Altzola-Beraseta)

Altzolatorrea (Olaetxea)

Arandiakoa (Zelaia eta Izeta)

Aurretxea

Elizburu

Itzaingoa (Itzaingua)

Kanterape

Torrekoa (Torrekua)

Zuhaitzaetxea

ARRIAGA

Aldai

Apatrizbekoa (Apraiz-Bekoa)

Apatrizerrota (Apraiz-Errota)

Arriaga

Arriagaberri (Arriaga-Berri)

Bizkotxa

Etxeberrimetal (Etxeberri-Metal)

Irabaneta

Karkizao (Karkizano)

Kortazar

Lizundia

Lizundiagoikoa (Lizundia-Goikoa)

Lizundiatxabola (Lizundia-Txabola)

Lizundiazpikoa (Lizundia-Azpikua)

Madarizurieta (Mausitxa)

Momiola (Muniola)

Oleta

Palazio

Silua

Urreatxabola

Zabalatorre (Zabale-Torre)

Zubiaurre

AZKUE (SAN ROKE)

Agirre (Agarre)

Agirretxiki (Agarre-Txiki)

Andikao (Andikano)

Azkue (Azkubea)

Bekoetxea (Bekoetxe)

Berazeta (Beraseta)

Bidaurre

Errekarteberri

Errekartenagusi (Errekarte-Nagusi eta Errekarte)

Errekartetxiki (Errekarte-Txiki)

Erretsundi (Erretxindi)

Erretsundiberri (Erretxindi Txaleta)

Goenaga (Guenaga)

Goenagaetxebarria (Guenetxeberri)



Ibartola

Ibartxiki

Kamiñerokoa (Kamiñerokua)

Kurutzekoa (Kurutze)

Mintxeta

Nafarmendi (Lapramendi)

Ortuzar

Panparrongoa (Panparron)

San Roke

Santsongoa (Sansongua)

Santsongoetxeberri (Sanson-Etxeberri)

Seigazteak (Sei-Gazteak)

Tokieder (Toki-Eder)

Ugarroa (Uarrua)

Zelandi

IDOTORBE (SAN PEDRO)

Aizpizkarbekoa (Aitzbizkar-Bekoa)

Aizpizkargoikoa (Aitzbizkar-Goikoa eta Aitzbizkar)

Akei

Akeiberri

Aldabe

Arana (Arane)

Aranburu

Arizpe

Arluzeaga (Arluziaga eta Ziriako)

Armazio (Armaxio)

Armuetaberri (Armuetaberri)

Armuetazar (Armuetaberri-Zahar)

Arraitzaga (Arraitza)

Arraitzagatxabola (Arraitza Txabola)

Aubia (Aubixa)

Barrenaerota (Barrenetxeko errota)

Egia (Egi)

Egiguren (Eguen eta Eguen-Nagusi)

Egigurentxiki (Eguen Txiki)

Egigurentxikiko txabola (Eguen Txikiko txabola)

Elordi

Galburusoro (Galbuso)

Goikoetxea (Goiko-Etxe)

Goizargi

Haizetxe

Herrigain

Ipintza

Irunaga (Irunabe)

Irunagaberri (Irunaga-Berri)

Irunagaerota (desagertua, Pontxera ere bai)

Irunagatxiki (Irunaga-Txiki)

Juanategi (Juanatei)

Juanategiko txabola (Juanateiko txabola)

Kortasoro (Kortaso)

Kurutzelaegi (lehen Kurutzalei)

Larrabe

Larramendi

Legarda

Olasoarte

Olasoazpikoa (Olasope)

Olasoberri

Otsoroandi (Osoro-Nagusi)

Otsorotxiki (Osoro-Txiki)

Pagotxiki

Sagarzurieta (Saurtitza)

Sakoneta (Lauko)

San Pedro

Urkieta (Urkitxa)

Urkiola

Urkiolatxiki

Usatorrea (Usatorre)

Zaturio (Saturixo)

Zizilion (Xizilion)

Zubizarreta



SALLOBENTE-ERMUARAN

Adozar (Aozar)

Adozarberri (Aozar-Berri)

Agirrejaunzuri (Agarre-Jaunzuri)

Aldamar

Amezti (Amesti)

Amuskategi

Amuskategietxetxo (Amuskategi-Etxetxo)

Antsolabazterra (Ansola Bazterra)

Antsolaerdikoa (Ansola-Erdikoa)

Arantzabal (Aranzabal)

Argingoa (desagertua)

Aritzaldea

Armaregieta (Armarieta-Armaitxa)

Armaregietaberria (Armarieta-Berri)

Armaregietatxikia (Armarieta-Txiki)

Arostegiberri (Arostegi-Berri)

Arostegipalazioa (Arostegi Palazioa)

Arostegitxiki (Arostegi)

Arrateko ama

Arteondo

Artesoro (Artaso)

Azaola

Azkarate

Azkarateberri (Azkarate-Berri)

Balentxi

Basartesorroeta (Basueta)

Berdun

Eguzkimore

Ermube

Ermugañekoa

Etxeberrigoen (Etxeberri Goen)

Etxeberrizabal

Etxezarra

Garagartzabekoa (Garagartza-Bekoa)

Garagartzaerrota (Garagartza-Errota)

Garagartzagoikoa (Garagartza-Goikoa)

Gelasoro (Gelatxo)

Gelasoroerrota (Gelatxo-Errota)

Gorostizabal

Ibarratorre (Ibarre-Torre edo Torrea)

Ibarrenea

Iriarte

Iriartetxeberria (Iriarte-Berri)

Jauregi

Jibraltar

Jibraltarborda (Jibraltar Borda)

Jibraltartxiki (Jibraltar-Txiki)

Juaristiaundi (Juaristi-Haundi)

Juaristitxiki

Kakatz (desagertua)

Kortaberritxo (lehen Kortaberri)

Kurutzeta

Lorigorta (desagertua)

Marigorta (Maiorta)

Mokoroa

Musillo

Olazabal

Ontzegon (Unzejon-Untzon)

Orraindi

Otsourteaga (Otsourtia)

Parapan

San Lorentzo etxea

Txaletberria (Txalet Berria)

Txillarre

Txillarretxiki (Txillarre-Txiki)

Unastegierrota (desagertua, Unastei-Errota)

Upaegi (Upai)

Upaegigoiti (Upai-Goiti)

Upaegitxiki (Upai-Txiki)

Uparitzagabekoa (Upaitza-Bekoa)

Uparitzagaberri (Upaitza-Berri)

Uparitzagagoikoa (Upaitza-Goikoa)

Urki (Urki)

MORKAIKY
KALEA

LEKVEDER
PARKA

ZIZILION
KALEA

Urondo

Urreategi

Zabaletabekoa (Zabaleta-Bekoa)

Zabaletagoikoa (Zabaleta-Goikoa)

Zubimendi

Zuhazti (Zuhaizti)

Zulueta (Zulueta-Bekoa)

Zulueta (Zulueta-Goitia)

URRUZUNO

Abatetxe

Aldamendi

Aldapa

Aldazelai

Andonenea (Andone-enea)

Antxusietabekoa (Antxusietabekoa)

Antxusietatxetxarra (Antxusietatxetxarra)

Antxusietagoikoa (Antxusietagoikoa)

Aranbeltz

Aranbeltzberri (Aranbeltz-Berri)

Aranbeltztxiki (desagertua)

Aureliaenea (Aurelia-enea)

Artetxe (desagertua)

Caballeroren txabola

Ertzil

Etxeberriako txabola

Garroren borda

Gure Ametsa

Haritzeta

Iñakiren txabola

Irazabaleta (Irazabaleta)

Iturburutxabola (Iturburu-Txabola)

Juanitoren borda

Landa

Lautxaboletako txabola

Lekunberri

Maitena

Mariaren txabola

Munoandi (Munaundi)

Olazarreta (desagertua)

Otaerota (Ota-Errota)

Patxiren txabola

Pelisen borda

Urruzunoandi (Urruzuno-Haundi)

Urruzunoberri (Urruzuno-Berri)

Urruzunoetxetxo (Urruzuno Etsetxo)

Urruzunoren txabola

Urruzunotxiki (Urruzuno-Txiki edo Laia)

Usetxe (desagertua)




ELGOIBARKO MAPA TOPONIMIKOA:

Elgoibarko Udalak herriko mapa toponimikoa argitaratu du, bertan jasotzen dira Elgoibarko auzoen, kaleen, industrialdeen, baserrien, erreken eta mendien toki-izenak. Mapa eskuratu nahi duten herritarrek Udaleko Euskara Sailak Kultur Etxean duen bulegora jo beharko dute, ordutegia goizeko 7:30etatik 15:00etara da. Gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, edota eskaera berezietarako, deitu **943744366** telefono zenbakira edo mezu bat bidali ondorengo helbide elektronikora: **euskara@elgoibar.org**. Udalaren web gunean, **www.elgoibar.org**, ere izango da mapa kontsultatzeko aukera.

MAPA TOPONÍMICO DE ELGOIBAR:

El Ayuntamiento de Elgoibar ha publicado el mapa toponímico de la localidad donde se recogen los topónimos de los barrios, zonas industriales, caseríos, ríos y montes de Elgoibar. Las personas interesadas en recoger un ejemplar del mismo deberán acudir a la Casa de Cultura, Departamento de Euskera, en horario de oficina desde las 07:30 hasta las 15:00 horas. Para cualquier consulta o solicitud se recomienda llamar al teléfono **943744366** o enviar un mensaje a la siguiente dirección de correo electrónico: **euskara@elgoibar.org**. El mapa también podrá ser consultado en la página web del Ayuntamiento: **www.elgoibar.org**.



ESKERTZA:

Elgoibarko Udalak esker ona eman nahi die toponimia ikerketa eta mapa toponimikoa egiteko euren laguntza eskaini duten herritarrei, elkarteei eta erakundeei.

AGRADECIMIENTOS:

El Ayuntamiento de Elgoibar desea agradecer la colaboración de todas aquellas personas, agrupaciones e instituciones que han colaborado en la elaboración del estudio toponímico y también del mapa toponímico de la localidad.

